



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) - CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2023ko martxoaren 10ean, eguerdiko ordu batean, Aezkoako Batzarre Nagusiak, bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak: Sres/as: Galarza Larrayoz, Maria Carmen – Merino Iriarte, Juan Esteban – Zabalza Barberena, Izaskun.

LEHENENGOA.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI.

2023ko otsailaren 7an egindako bilkuraren akta onetsi da, eragozpenik agertu ez baita.

BIGARRENA.- JAUREGIKO TABERNA-SUKALDEA HORNITZEKO KONTRATUA ESLEITZEA

Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak 2022an onartutako lizitazioa da, prozedura erraztuaren eta lizitazioaren bidez (Nafarroako lizitazio elektronikoko PLENA plataforma), Orbaizetako Munizioen Errege Fabrikaren Jauregiko eraikinean sukalde industrialerako eta tabernarako makineria hornitu, instalatu eta martxan jartzeko kontratua esleitzeko. Kontratazio Atariko iragarkian zehaztutako epean bi enpresaren proposamenak aurkeztu ziren: Joaquín Chocarro SL eta Navarra de Hostelería y Hospitales SLL.

Kontratazio-mahaiak kontratazioa arautzen duen baldintzetan ezarritako irizpideen arabera balorazioak egin ondoren, Mahaiak erabaki du Aezkoako Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurari proposatzea erreferentziako kontratua NHH-SLL (Matachana) enpresari esleitzea, hura baita prozeduran puntuaziorik handiena lortu duena, honela banatuta:

	III.ERANSKINA	IV.ERANSKINA	V. ERANSKINA	VI. ERANSKINA	VII.ERANSKINA	VIII. ERANSKINA
	KALITATEA-ISO	GIZARTE IRIZPIDEAK	AURKEZTEKO EPEA	ERANTZUTEKO DENBORA	BERME OSAGA	ESKAINZA EKONOMIKOA 70 puntu
	5 puntu	5 puntu	5 puntu	5 puntu	10 puntu	
	Eskain Puntu	Eskain Puntu	Eskain Puntu	Eskaintz Puntu	Eskaintz Puntu	Eskaintza Puntu
J.Chocarro	EZ 0	%100 5,00	10 egun 5,00	48 h. 0	12 M 5,00	56.442,27 67,94
NHH-SLL	EZ 0	%98% 4,90	10 egun 5,00	SI 5,00	48 M 10,00	54.778,67 70,00

J. Chocarrok 82,94 puntu lortu ditu guztira, eta NHH-SLLk, berriz, 94,90 puntu.

Kontratazioa arautzen duen baldintza pleguaren 10. oinarrian ezarritakoaren arabera, esleipenerako proposamena egin zitzaion enpresari, errekerimendu hori bidali eta gehienez ere 7 egun naturaleko epean adierazitako dokumentazioa aurkez zezan, lizitazio-plataforma beraren bidez. Dokumentazio hori dagoeneko aurkeztu da, PLENAn jasota dagoenez, 78/2023 sarrera-erregistroarekin, adierazitako epean.

Azaldutakoagatik guztiagatik, Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak erabaki du Navarra de Hostelería y Hospitales SLL enpresari esleitzea Kultur Ola eraikinean bar-sukalderako makinak hornitu eta instalatzeko kontratua,

berrogeita hamalau mila zazpiehun eta hirurogeita hamazortzi euro eta hirurogeita zazpi zentimokoa, BEZik gabe, kontratazioa arautzen duten baldintzen eta enpresa esleipendunak aurkeztutako eskaintzaren arabera.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101. artikuluan xedatutakoaren arabera, adjudikazioaren eraginkortasuna eten eginen da hamar egun naturaleko epean, adjudikazioaren jakinarazpena igortzen den egunetik zenbatzen hasita, baldin eta igorpen hori bitarteko elektronikoen bidez egiten bada.

HIRUGARRENA.- KULTUR OLAN INFORMAZIO ZERBITZUA EMATEKO LANGILEA KONTRATATZEA

Kultur Ola eraikinean zerbitzua martxan jartzeko praktiketako kontratuak egiteko aukera egonen litzatekeen kontsultatuta (Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan administrazio publikoek praktiketako kontratazioak egiteko dirulaguntzen deialdiaren barruan), ikusi da ez dagoela, dagoeneko, lan kontraturik egiteko aurrekontu krediturik, eta, beraz, ezin izanen da dirulaguntzarik lortu kontratazio horietarako.

Azaldutakoagatik eta Aste Santurako Kultur Ola gunea irekitzea aurreikusten denez, Osoko Bilkurak erabaki du lan-eskaintza bat egitea Agoizko Bulegoan. Kontratazioa hau izanen da:

- Pertsona 1, 9 hilabetez aritzeko (interes orokorreko zerbitzu-kontratuetan sartzeko eta SNE-NLSren dirulaguntza jasotzeko). Pertsona hori arduratuko da zentroa zabaltzeaz, bisitariak erakartzeaz, sustatzeaz eta aurrien espaziora bisita gidatuak egiteaz.

Ekainetik aurrera, aurreikusitako gainerako kontratuak eskainiko dira, alegia, aurrekoari laguntzeko bi pertsona gehiago, azaroaren 13ra arte, eta Abenduko Zubia, eta eraikina garbitzeko langileen kontratazioa, zentro hori abian jartzeko bere garaian egindako aurrekontuan banakatuta agertzen den bezala.

Aukeraketa egiteko oinarritzat hartuko da eskualdeari eta munizio olari buruzko ezagutza. Soldata Administrazioaren D mailaren baliokidea izanen da, Arrazolako informazio-zerbitzuko langileentzat ezarritako osagarri berekin. 9 hilabetez kontratatuta egonen den pertsonarentzat, edukiak landu behar dituzenez, euskararen C1 maila egiaztatzea eskatzen da.

LAUGARRENA.- INTERES OROKORREKO EDO/ETA SOZIALEKO OBRAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROIEKTUAK. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAREN DIRULAGUNTZAREKIN.

NAOn argitaratu da, martxoaren 9ko 49. zenbakian, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari gerentearen otsailaren 10eko 164E/2023 Ebazpena. Haren bidez, "Toki erakundeentzako dirulaguntza, langabetuak interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko kontratatzeagatik" izeneko dirulaguntzaren deialdiaren gastua baimentzen da. Osoko Bilkurari aurkeztu zaizkio urte honetarako aurreikusitako kontratazio-espeditenteak, bere garaian ekitaldiko aurrekontuetan jasota gelditu zirenak:

Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak, Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari gerentearen martxoaren 7ko 251/2018 Ebazpenaren bidez araututako laguntzen deialdia ikusita, erabaki du basoa eta ingurumena kudeatzeko sei hilabeteko bi pertsona kontratatzea. Eginkizun hauek izanen dituzte: baso-kudeaketako lanak, baso-tratamenduak, sastrakak kentzea eta garbitzea, zuhaitzak markatzea, korraleak konpontzea, hondakinak kontrolatzea, sarbideak egokitzea, suteak prebenitzea, garbiketa, jolas-eremuak, makineria prestatzea eta mantentzea, abeltzaintza-kudeaketa, etab., hori buruz egin den memorian adierazitakoaren arabera. Aurreko urteetan bezala, Ibarreko udalei galdetuko zaie, langile horiek aldi batzuetan behar dituzten adieraz dezaten, eta beren udalerrietara bideratzen diren egunetan diruz lagundu gabeko kostuak beren gain har ditzaten.

Hileko soldata Administrazioaren E mailari dagokio, gehi % 15eko osagarria. Beraz, soldaten kostua, aparteko ordainsariaren hainbanaketa barne, 18.055,24 €-koa da, gehi Enpresaren Segurtasunaren kostua 7.258,00 €-koa. Proiektu honen guztizko zenbatekoa 25.313,24 €-koa da.

Batzarre Nagusiak erabaki du bere gain hartzea proiektu honetan finantzatu gabeko aldea, eta, bere garaian eta kontratazio horiek diruz laguntzeko gastua baimendu ondoren, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea kontratuak hasi direla. Horretarako, jardunaldi honetako aurrekontuan nahikoa kreditu dago, 24191-13100001 (19.100,00 €) aurrekontu aplikazioan. Langile horiek hautatzeko epaimahaiaren osaera iazko bera izanen da, eta probak lanpostuari dagozkion trebetasunak eta curriculumaren balorazioa izanen dira.

Maiatza ezarri da kontratuak hasteko ahalezko data; data zehatzak finkatuko dira enplegu-eskaintzaren kudeaketak, izapideek eta hautaketa prozesuak eskatzen duten denboraren arabera.

Era berean, erabaki da, bigarren proiektu bat aurkezteko aukera egonen balitz (aurreko proiekturako kontratatuko diren langileen profilak kontuan hartuta) Kultur Ola eraikinerako informazio-zerbitzuko pertsona kontratatzeko dirulaguntza eskatzea EZNri, finantzaketa-lerro beraren barnean, aurreko puntuan adierazi den bezala. Pertsona hori 9 hilabetez kontratatzeko aurrekontua honako hau da: 18.773,88 €soldata-kostuetarako eta 6.758,60 € enpresako gizarte-segurantzarako.

Kontratazio horiek izapidetzeko, Batzarre Nagusiak Agoizko Enplegu Agentziari eskatuko dio hautagaien aurre-hautaketa egin dezan, bai kolektibo kalteberenak, bai gainerako profilenak.

BOSGARRENA.- KULTUR OLA ERAKUSKETETARAKO BISITEN PREZIO PUBLIKOAK ONARTZEA. AUTOKARABANEN ZERBITZUGUNERAKO PREZIO PUBLIKOAK.

Kultur Ola (erakusketak bisitatzeko) aurki irekiko dela ikusita, maiz hitz egin da erakusketak horietara sartzen direnei sarrera kobratzeari buruz, baina ez da zehaztu zer eta zenbat kobratu.

Indarrean dagoen arautegiaren arabera, prezio publikotzat hartuko dira zuzenbide publikoko araubidean egindako zerbitzuengatik edo jarduerengatik ordaintzen diren diru kontraprestazioak, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak ematen baditu eta administratuek borondatez eskatzen badituzte. Hau da, eskaintzen den zerbitzua ez da erabiltzaileak nahitaez jaso beharrekoa edo sektore pribatuak eman ezin duena.

Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak 28. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen du prezio publikoen erregulazioa:

28. Artikulua - Nafarroako toki entitateek prezio publikoak ezarri eta galdatu ahal izanen dituzte beren eskumeneko zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik, hurrengo artikuluetan jasotako xedapenekin bat etorritik.

29. artikulua. Kontzeptua: Prezio publikotzat hartuko dira kontraprestazio horiek jasotzen dituen toki-erakundearen eskumeneko zerbitzuak emateagatik edo administrazio-jarduerak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldin eta foru lege honen 100.2 artikuluan B) letran zehaztutako inguruabarretako bat ere gertatzen ez bada.

Halaber, arau beraren 32. artikuluan ezartzen denez, prezio publikoen zenbatekoak, gutxienez, emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua estali beharko du.

Hala ere, 2. paragrafoak adierazten duenez, arrazoi sozialak, ongintzakoak, kulturalak edo interes publikokoak daudenean, erakundeak aurreko paragrafoan aurreikusitako mugatik beherako prezio publikoak ezarri ahal izanen ditu. Kasu horietan, ateratzen den aldea estaltzeko behar diren zuzkidurak jarri beharko dira erakundearen aurrekontuetan, halakorik balego.

Azaldutakoagatik guztiagatik, Batzarre Nagusi honek uste du bailara eta bertako kulturaren eta historiaren sustapena bermatuta gelditu behar dela, mota guztietako bisitarietzako arrazoizko prezio publikoa ezarritik. Horrek, haranaren ezagutza sustatzeaz gain, bisitarietzako erakargarri izan daiteke, eta, era berean, zerbitzuen sektoreko jarduera pribatua sustagarri ere.

Prezio hori BEZari atxikitzeari dagokionez, salbuetsi egiten da, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17. artikuluan, barne-eragiketarako salbuespenei buruzkoan, araututakoaren arabera, eta bertan ezartzen da zerga honetatik salbuetsita egonen direla honako jarduera hauek:

8. Ondoren zerrendatzen diren zerbitzuak, zuzenbide publikoko erakundeek edo izaera sozialeko kultura-erakunde edo -establezimendu pribatuek egindakoak:

a) Liburutegi, artxibo eta dokumentazio-zentroei dagozkienak.

b) Museoak, arte-galeriak, pinakotekak, monumentuak, leku historikoak, lorategi botanikoak, parke zoologikoak eta parke naturalak eta antzeko ezaugarriak dituzten beste naturagune babestu batzuk bisitatzea.

c) Antzerki-, musika-, koreografia-, ikus-entzunezko- eta zinematografia-emanaldiak.

d) Erakusketak eta antzeko adierazpenak antolatzea.

Azaldutako guztiagatik, Osoko Bilkurak prezio publiko hauek ezartzea erabaki du:

	Kultur Ola	Bisitaldi gidatua
Sarrera orokorra	5,00 €	8,00 €
Orokor bateratua	10,00 € (Kultur Ola + bisitaldi gidatua)*	
Hobariak:		
10 urtetik beherakoak	Doan	Doan
Erretiratuak, pentsiodunak	4,00 €	6,00 €
Langabeak	3,00 €	5,00 €
Ikasle taldeak	1,00 €/pertsoneko	1,00 €/pertsoneko
Taldeak (gutxienez 15 lagun)	Sarrera orokorraren %20ko beherapena	

OHARRAK:

- 1- * Sarrera orokor bateratuarekin batera, Iratira sartzeko deskontu-txartel bat jasoko da.
- 2- Taldeen bisitak aldez aurretik jakinarazi beharko dira, erreserba antolatze eta beherapena aplikatuta ordaindu ahal izateko.
- 3- Aezkoa ibarreko herritarrek urtean 4 bisita izanen dituzte, bai erakusketa-gunera bai ibilbide gidatura, doan sartzeko. Datak "aezkoa.org" web orrian argitaratuko dira. Data jakin horietatik kanpo, gainerako bisitarien baldintza berberetan sartu ahal izanen da.
- 4- Prezio hobariduna edo doako sarrera duten sarrerak eskuratzeko, ezinbestekoa da kategoriari dagokion egiaztagiria aurkeztea.

Prezio horiek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren sartuko dira indarrean

SEIGARRENA.- ZENBAIT GAI

- Despopulazioaren aurkako neurriak

Nafarroako despopulazioaren aurkako borroka egiteko parte-hartze prozesua 2022ko uztailean hasi zen, eta Despopulazioaren aurkako Nafarroako Estrategia jendaurrean jartzeko fasea otsailaren 28an amaitu zen. Epeak ikusita, presidentek emandako 1/2023 Ebazpenaren bidez, eskabide hau aurkeztea onartu zen:

"Aezkoako Batzarre Nagusiak, Pirinioen eremuan kokatuta dagoen toki entitate gisa, badaki Nafarroako Lurralde Estrategia berrikustea oso garrantzitsua dela despopulazioari eta erronka demografikoari aurre egiteko estrategia garatzeko; izan ere, tresna horren mende dago, hein handi batean, despopulazioaren aurkako Estrategiak berak ezar dezakeena", eta, denbora eta forma aldetik, iradokizun bat aurkeztu zuen hura berrikusteko.

Bertan, despopulazioa aintzat hartu eta horri erantzunen dion lege marko bat eskatzen da, Nafarroako hainbat landa-eremutako errealitate horiek iraultzeko politika publiko egokien diseinuari ekarpena egiteko gai izanen dena, lurralde kohesioa eta oreka lortzeko.

Despopulazioaren aurkako Estrategia egiteko prozesuan planteatutako sei arloak oinarritzat hartuta, Pirinioak despopulazioarekiko arriskurik handiena duen eremua dela jakinda eta fenomenoak lurraldean larria dela kontuan hartuta, HONAKO HAU ESKATZEA EBATZI DUT:

1- Erlojuaren kontrako borroka horretan denbora galdu gabe eta ahalik eta azkarren, Despopulazioari Aurre Egiteko Legea prestatzea, arazo horrekin identifikatutako landa eremuekin kontrastatua eta landua.

2.- Lege hau garatzeko aurrekontu partida gaitzea.

Osoko Bilkurak berretsi egin du presidentek ebazpenaren bidez ebatzitakoa.

- Munizio Olan bideo-bideoklipa grabatzeko eskaria.

M. Jakak aurkeztu du, Beietz musika taldeak martxoaren 28an Munizio Olako hondakinetan taldearen promozio bideo bat grabatzeko.

Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak uste du, ibarra ezagutzera emateko helburu zehatzik ez badu ere, argi dagoela grabazio horrek sustapena egin dezakeela, bai Munizio Olarena, bai Aezkoako ibarrarena. Hori dela eta,

eskatzaileari jakinaraztea eskatutako grabazioa baimentzen dela ezarritako tasa kobratu gabe, betiere kredituetan berariaz adierazten bada "Aezkoako Kultur Olaren laguntzarekin", eta modu horretan bermatu ibarraren hedapen eta sustapen-helburuak betetzen direla.

Zabalza andereak Osoko Bilkura utzi du.

- Txabola uzteko eskaera

C. Saurak eta R. Martínezek aurkeztu dute; azaldu dute ibarreko txaboletako bat erabili nahi dutela, ekosistemei, flora eta faunaren aniztasunari, ohiturei eta etnografiari buruzko azterketak egiteko, hezkuntza- eta dibulgazio-ikuspegitik. Proiektuak bi ardatz ditu:

1. Irati mendiko larre-sistemako flora eta faunaren biodibertsitatea aztertzea.

Fototranpatze-kamerak baliatuta eta landa-lanarekin batera, Garraldako eskolako DBHko zientzietako ikasleei hezkuntza esparruan zabaltzeko azterlanak eginen dira. Ingurunearekin lotutako ikerketa proiektuak antola daitezke.

2. Txabolen erabilerari eta kontserbazioari buruzko azterketa etnografikoa eta antropologikoa.

Landa lanaren ikuspegia izanen du, eta azterketa metodo kualitatibo eta parte-hartzaileetan oinarrituko da. Gaur egungo erabilera praktikak eta sortutako beharrak aztertuko dira. Zonan berezkoa den oholezko teilatua egiteko prozesuaren sistematizazioa landuko da. Inguruko kultura elkarteekin lankidetzan jardunen da, ondorioak zabaltzeko; eta txabolaren bizigarritasuna eta baldintzak hobetzeko konpromisoa adierazten dute: oholezko teilatua jartzea, isolamendua eta egokitzeko behar den edozein obra.

Batzarre Nagusiaren ustez, proposamen hori oso interesgarria da Aezkoarentzat eta Batzarre Nagusiarentzat berarentzat; hala ere, ibarreko txaboletako bat eskatu duten eta ematearen zain dauden pertsonen zerrenda bat dagoenez, Batzarre Nagusiak 2010ean onartutako txabolak berreskuratzeko eta birgaitzeko planaren barruan, erabaki da gainerako eskatzaileekin tratatzea lehenik eta behin, eta proposamen hori aurrera ateratzeko aukera aztertzea.

- Munizio Olaren barrutian ezkontza egiteko eskaera

I. Hualdek aurkeztu du. Bertan adierazi du abuztuaren 5ean ezkontza bat ospatu nahi dutela Munizio Olan eta Batzarre Nagusiari baimena eskatu diote. Aurrien gunean eginen dute ezkontza eta plazan, Jauregiko sarreran, bazkaria egiteko karpa bat jarri nahi dute; karpa ostiralean muntatu eta hurrengo astelehenean desmuntatuko da. Janaria prestatzeko elektrizitatea behar dute eta baita bainuak erabiltzeko baimena ere; printzipioz cateringerako ez da ezer behar, baina gela bat behar izanez gero baimena eskatuko dute.

Batzarre Nagusiaren ustez, ez dago inolako arazorik zeremonia Olako aurrien inguruan egin ahal izateko; baina, jauregiaren aurrean karpa bat jartzeari dagokionez, espazioa erabiltzea askoz zailagoa da, abuztuan eraikina irekita egonen baita eta kanpoaldean tabernako terrazako zerbitzurako mahai eta aukiak egonen direlako. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da eskatzaileekin bilera bat egitea, beste aukera batzuk aztertzeko; era berean, Orbaizetako Udalak baimena eman beharko du, haren eskumena delako.

- Toki Entitateetako Cl@ve erregistro bulegoak

Joan den astean tokiko garapeneko agentearekin hitz egin zen Batzarre Nagusiak herritar guztiei Idazkaritzan Cl@ve lortzeko aukera eskaintzeaz, gaitutako erregistro bulego gisa. Nafarroako Gobernua Cl@ve sustatzen ari da, zerbitzu telematikoen bidezko izapideetan identifikatzeko metodo bezala. Bi baldintza daude herritarrek beren tramiteak Cl@ve erabili ahal izateko:

1. Toki-erakundearen administrazio elektronikoko sistemak Cl@ve onartzeko prestatuta egotea.
2. Herritarrek bere Cl@ve eskuratzea; horretarako, aukeretako bat da baimendutako erregistro bulego batera agertzea.

Gaur egun, Administrazio Publikoen erregistroetan, pertsona batek alta eman dezake Cl@ve sisteman (Estatuko bulegoetan, SEPEn edo Gizarte Segurantzari, Nafarroako Gobernuaren erregistro-bulegoetan, besteak beste) eta toki-erakunderen batean. Batzarre Nagusiak Cl@ve erregistro bulego gisa parte hartzeak, bizilagunekiko hurbiltasuna eta zuzeneko harremana kontuan hartuta, hobekuntza nabarmena ekarriko du nortasun digitaleko sistema hori eduki ahal izateko, eta beste herri batzuetara joan behar izatea ekidinen du.

Batzarre Nagusia 2014tik Nafarroako Gobernuak MINHAFFprekin duen hitzarmenari atxikita dagoenez, Administrazio Elektronikoko soluzioak elkarri emateko, aski litzateke Cl@ve sistemaren aurrez aurreko erregistro bulego bat sortzeko eskatzea, ezarritako prozedurari jarraituz.

Osoko Bilkurak Cl@ve erregistro-bulegoa eratzeko eskaera izapidetzea erabaki du.

- Martxoaren 8a. Adierazpen instituzionala

NUKF-ek igorri die toki entitate guztiei, eta atxikimendua adieraztea eskatu du.

“Aurrerapen asko egin dira, baina oraindik ere desberdintasunak, diskriminazioa eta emakumeen aurkako indarkeria daude, emakumeak izateagatik. Hori dela eta, ezin da epelkeriaz jokatu eta neutralak izan.

Martxoaren 8a Emakumeen Eskubideen aldeko Nazioarteko Eguna izendatu zuen Nazio Batuen Erakundeak, 1975ean. Harrezkero, ospakizun-eguna da, historian zehar lortu ditugun aurrerapenengatik, eta errebindikaziokoa, bizitzaren esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan lortzeke daukagunagatik.

Aurten, lortutako aurrerapen guztiak sendotu behar ditugu eta alde batera utzi zenbait sektorek egin nahi duten zarata, gizarte matxistan eskuratutako pribilegioetan mehatxatuta sentitzeagatik; izan ere, oro har, emakumeak historian zehar izan duen papera ezkutatu eta gutxietsi egin da.

Ez ditugu ahaztu behar kolektibo kalteberak, horietako emakumeek askotariko diskriminazioak pairatzen dituztelako: emakumeak izateagatik ez ezik, desgaitasuna edukitzeagatik, arraza edo etnia jakin batekoa izateagatik, adin jakin bat izateagatik edo handietatik kanpo bizitzeagatik eta lan egiteagatik.

Ilido horretan, landa-munduko emakumeak hartzen ditugu kontuan, baita despopulazioaren aurkako borrokarekin eta erronka demografikoarekin lotutako jardueren garapenean duten funtsezko zeregina ere.

Lanari dagokionez, lanaldi partzialeko lana, soldata, produkzio-sektoreak, karrera profesionala, etab. bezalako adierazleak datuak ikusita, emakumeen lan-baldintzak gizonenak baino okerragoak dira, eta presentzia

txikia dute sektore profesional jakin batzuetan eta enpresa-zuzendaritzako karguetan. Duela urte batzuk arte, pentsamendu orokorra zen emakumeen aurkako indarkeria norbanakoen eta eremu pribatuaren jarreraren ondorio zela. Lortutako aurrerapenei eta gizartearen ikusgarritasun eta sentsibilitate handiagoari esker, kezken erdigunean kokatzea lortu da, arazo sozial kategoriarekin, eta botere publikoetatik berehalako erantzuna emateko beharra dago. Genero-indarkeriak desberdintasunaren alderik ilunena dira.

Tokiko eremutik berdintasunezko gizarte bat eraikitzeke konpromisoarekin jarraitu behar dugu, pertsona guztien eskubideak eta tokiko bizitzan parte-hartze aktiboa bermatuko dituen.

Konpromiso horiek tokiko politikak diseinatzean eta kudeatzean gauzatu behar dira, gure gizarteak eraldaketa-eragile bihurtu daitezela. Hori dela eta, FEMPen bildutako tokiko gobernuok Adierazpen honi atxikitzen gonbidatzen ditugu toki-erakunde guztiak.

NUKF-ek egindako proposamena ikusita, Batzarre Nagusiko Osoko Bilkurak erabaki du, goian azaldutakoagatik, proposatutako adierazpenari atxikitzea, eta, horrenbestez, erabaki du:

1- Enplegua, ahalduntzea eta aukera-berdintasunerako hezkuntza sustatzeko politiken garapenean ahaleginak areagotzea.

2- Tokiko jarduera guztietan genero-ikuspegia erabiltzea eta tokiko gobernuen arloen arteko koordinazio egokia ezartzea. Berdintasun-politiken garapenean jarduteko sistemak eta protokoloak eguneratzea, inplikaturako erakunde guztiekin koordinatuta.

3- Datuak biltzeko sistema bereziak planteatzea, genero-desberdintasunak ulertzeko eta jorrazteko, horiek aztertuta erantzun egokia eta eraginkorra eman ahal izan dezagun.

4- Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema zabaltzea, gure eskumenen esparruan, detekzio goiztiarreko sistemen hobekuntzan aurrera eginez, neurri guztien erdigunean biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea kokatuz, eta biktimen erreparazio-eskubidea aintzat hartuz.

5- Bat egitea eta herritar guztiak gonbidatzea M8aren harira antolatutako ekitaldietan parte har dezaten, bai eta berdintasuna aldarrikatzeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka Euskal Herriko mugimendu feministatik abiatzen diren ekintza eta ekimen guztietan ere.

- Kultur Ola eraikina irekitzeko baimena.

Jakinarazi da dagoeneko jaso dela Orbaizetako Udaletik Kultur Ola eraikina irekitzeko lizentzia.

Batzarre Nagusia jakinaren gainean dago.

- UGET.

Jakinarazi da bilera bat egingen dela Cederna – Garalurrekin Helmuga Turistikoko Iraunkortasun Planari buruz hitz egiteko. Jakin nahi izan da ea % 100eko laguntza jasoko duen hitzarmen edo proiektu estrategikorik egon den, eta, oraingoz, gai hori zehaztu gabe dago. Azpimarratu zen Pirinioetan askotariko errealitateak daudela. Hori guztia martxo aldera erabakiko da, eta erabaki horren arabera egingen da. Hilabete horretan, teoriarik, aurreikusitako funtsak Cedernari eskualdatzea sinatuko dute, eta banaketa-oinarriari buruzko

plan bat egin behar da. Ez dakigu zer gaitasun izanen duen batzorde teknikoak, eta erakunde bat sortu beharko da, diru hori banatzeko baldintzen ildo estrategikoa zehazteko duena. Toki-erakundeek uste dute proiektu estrategikoak egon behar direla Pirinio osoan, eta proiektu horiek % 100eko dirulaguntza izan behar dutela.

Bada Next Generation funtsetatik datorren beste finantzaketa lerro bat, Nafarroako Gobernuarentzat gelditzen dena, eta hark onartuko ditu, martxotik aurrera ere, berariazko deialdiak. Nolanahi ere, lehentasuna emanen zaie dagoeneko zehaztuta dauden eta beharrezko baimenak lortu dituzten proiektuei.

- Dirulaguntza ematea – Pirinioetako Planeko ekintzak

Jakinarazi da Batzarre Nagusi honi jakinarazi zaiola dirulaguntza bat eman zaiola Orbaizetako Udalaren eta Batzarre Nagusiaren artean aurkeztutako lankidetzaproiektuari. Dirulaguntza hori 12.100,00 eurokoa da, hau da, Orbaizetako Munizio Fabrikaren inguruan aparkaleku-proiektu bat idazteko aurreikusitako gastuaren aurrekontuaren %100. Laguntza hau Pirinioetako Planaren lurralde-eremuan inskribatutako toki-erakundeentzako dirulaguntzen deialdiari dagokio, 2023an plan horri lotutako ekintzak gauzatzeko.

Dirulaguntza ematea ikusirik, Batzarre Nagusiak erabaki du dagokion proiektua idazteko enkargua egitea, zeina izapidetuko baita, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikuluan ezarritakoaren arabera, zenbateko txikiko kontratuetarako prozeduraren bidez: balio zenbatetsia 15.000 eurotik beherakoa dutenak hornidura edo zerbitzuen kasuan.

- NPB 2023 azalaren aitortpena.

Informatu da, NPB azalaren aitortpen kanpainaren hasi deneko jakinarazpena jaso ondoren, Batzarre Nagusi honi dagozkion aurreko kanpainako datuak eta aurtengoak aldaratu direla, eta ikusi da 180 bazka-eremu hektarea garbi gutxiago daudela. Nafarroako Gobernuarekin premiazko bilera bat eskatu da, eta Nekazaritza Zerbitzuarekin haraneko ustategien hektarea beharrei buruzko datuak alderatuko zituztela erran zuten. Iaz, ibarreko abeltzainek eskatutakoak baino askoz hektarea gutxiago zeuden eskuragarri, eta aurten askoz ere zailagoa izanen da banaketa egitea. Beharrezkotzat jo da udalekin bilera bat egitea, haien herri-lur gehienetan ere murrizketa handiak egon baitira. Bestalde, alegazio-dokumentu bat aurkeztu behar da, 2017tik gaur egunera arte larreak hobetzeko egindako erreketa guztiak, belar-sastrakak garbitzea eta abar jasotzen dituen, esleitu diren hektareak 2017ko satelite-datuei dagozkielako.

ZAPIGARRENA.- GALDERA ETA ESKEAK

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztertzeko gai gehiagorik agertu ez baita, bilkura bukatutzat eman da arratsaldeko laurak eta hogeit minutuan. Esandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.